

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

BERDINTASUN, EUSKARA ETA GOBERNANTZA SAILA

568/2025 Erabakia, urriaren 7koa, Foru Gobernu Kontseiluarena Onestea Arabako Lurralde Historikoan eta Trebiñuko enklabeen tokiko edo eskualdeko euskarazko komunikazio proiektuak finkatu, garatu eta normalizatzeko dirulaguntzen deialdia 2025eko ekitaldirako

Arabako Foru Aldundiko Berdintasun, Euskara eta Gobernantza Sailak Arabako Lurralde Historikoan eta Trebiñuko enklabeen tokiko edo eskualdeko euskarazko komunikazio proiektuak finkatu, garatu eta normalizatzeko dirulaguntzen deialdi publikoa egitea proposatu du 2025eko ekitaldirako.

Foru Gobernu Kontseiluaren uztailaren 21eko 23/2020 Foru Dekretuan xedatutakoaren arabera izapidetuko da deialdi hau. Foru Dekretu honek onartu zituen Diputatu Nagusiaren Sailak lehiaketa bidez emango dituen dirulaguntzak arautuko dituzten oinarri orokorrak (ALHAO 84 zenbakia, 2020ko uztailaren 27koa).

Nahitaezko txostenak aztertu dira.

Horregatik, Berdintasun, Euskara eta Gobernantza Foru Diputatuak proposatuta, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bileran gaia aztertu ondoren, hauxe

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Onespena ematea Arabako Lurralde Historikoan eta Trebiñuko enklabeen tokiko edo eskualdeko euskarazko komunikazio proiektuak finkatu, garatu eta normalizatzeko dirulaguntzen deialdi publikoari 2025eko ekitaldirako, 322.504,00 euroko gehieneko zuzkidurarekin. Deialdi hau Diputatu Nagusiaren Sailak lehiaketa bidez emango dituen dirulaguntzak arautuko dituzten oinarri orokorrak onetsi zituen Foru Gobernu Kontseiluaren uztailaren 21eko 23/2020 Foru Dekretuan (ALHAO, 84. zenbakia., 2020ko uztailaren 27koa) xedatutakoaren arabera arautuko da.

Bigarrena. Erabaki honen bidez araututako dirulaguntzak, 322.504,00 eurokoak, Arabako Foru Aldundiaren 2025eko aurrekontuko "25201. G/335251/47900250 Dirulaguntza: euskarazko hedabideak" partidaren kontura ordainduko dira.

Hirugarrena. Euskararen Foru Zerbitzuaren proposamena aztertuta, organo eskudunak bidezko den ebazpena hartuko du; horretarako, gehienez ere, sei hilabeteko epea izango du, deialdia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Gehieneko epea igarota esanbidezko ebazpenik ez bada, esan nahiko du eskaera ezetsi egin dela.

Laugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du, eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. artikuluan xedatzen duenaren arabera, aukerako berraztertze errekurtsoa jar dakioko ebazpena eman duen organoari, hilabeteko epean, egintza hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, edota zuzenean administrazioarekiko auzien jurisdikzioan aurka egin dakioko bi hilabeteko epean, egintza hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, dagokion administrazioarekiko auzietarako epaitegian, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen artikuluan ezarritakoaren arabera.

Bosgarrena. Berdintasun, Euskara eta Gobernantza foru diputatuari ahalmena ematea erabaki hau garatu, interpretatu eta betearazteko behar diren egintzak eta xedapenak eman ditzan.

Seigarrena. Deialdi hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko urriaren 7a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Berdintasun, Euskara eta Gobernantza foru diputatua

IÑAKI GURTUBAI ARTETXE

Euskararen eta Gobernu Irekiaren zuzendaria

JOSEBA KOLDO PÉREZ DE HEREDIA ARBÍGANO

Eranskina

Deialdia: 2025eko ekitaldian Arabako Lurralde Historikoan eta Trebiñuko barrendegian tokiko edo eskualdeko euskarazko proiektu komunikatiboak sendotzeko, garatzeko eta normalizatzeko dirulaguntzak.

Lehenengoa.- Xedea

Deialdi honen xedea da dirulaguntzak ematea 2025eko ekitaldian Arabako Lurralde Historikoan eta Trebiñuko barrendegian tokiko edo eskualdeko euskarazko proiektu komunikatiboak sendotzeko, garatzeko eta normalizatzeko.

Bigarrena.- Eremua

1. Dirulaguntzen helburua da euskaraz argitaratzen diren tokiko edo eskualdeko hedabideak lantzeko, sortzeko eta zabaltzeko lanek eskatzaileei egindako gastuak finantzatzea, betiere deialdiaren laugarren eta bosgarren apartatueta ezartzen diren baldintzak betetzen badira.
2. Laguntza hauen ondorioetarako, tokiko edo eskualdeko hedabidetzat hartuko dira helburu nagusitzat udalerriko edo eskualdeko informazioa euskara hutsez zabaltzea dutenak, baldin eta jarduera nagusia paperean argitaratzea edo audioan zabaltzea bada, edizio elektronikoaz gainera.

Hirugarrena.- Erakunde onuradunak

1. Deialdi honetako laguntzak jaso ditzakete erakundearen egoitza eta zerga egoitza Arabako Lurralde Historikoan edo Trebiñuko barrendegian duten pertsona juridikoek, baldin eta aurreko apartatuan aipatzen diren hedabideetako baten titullarrak badira.
2. Ezin dira izan dirulaguntzen onuradunak Diputatu Nagusiaren Sailak lehiaketa bidez emango dituen dirulaguntzak arautzen dituzten oinarri orokorrak onesten dituen Foru Gobernu Kontseiluaren uztailaren 21eko 23/2020 Foru Dekretuaren eranskinaren hirugarren oinarrian ezartzen diren inguruabarretako batean dauden pertsonak eta erakundeak (ALHAO, 84. zenbakia, 2020ko uztailaren 27koa).

Laugarrena.- Diruz lagundu daitezkeen proiektuak.

- 1.- Euskara hutseko proiektu komunikatiboek jasoko dute dirulaguntza. Erakunde bakoitzak eskaera bakar batean sartu behar ditu bere proiektu komunikatiboko hedabide guztiak. IFZ berari ez zaio emango dirulaguntzarik proiektu komunikatibo bat baino gehiagotarako. Erakunde batek bi eskaera aurkezten baditu, dagoeneko erregistratuta dagoenean atzera egin duela ulertuko da, eta haren inguruko prozedura azkenduko da.
- 2.- Jarduera nagusia, edizio elektronikoaz gainera, paperean argitaratzea edo audioan zabaltzea den tokiko edo eskualdeko proiektu komunikatiboetarako emango dira dirulaguntzak.

Bosgarrena.- Dirulaguntza jasotzeko proiektuek bete beharreko baldintzak.

1.- Aurkezten diren proiektuek baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) Euskara hutsean egin behar da. Proiektu komunikatibo bat dirulaguntza jasotzeko aurkezten duten erakundeek, izaera juridikoa gorabehera, beren estatutuetan, lanetan eta agiri ofizialetan berariaz adierazi beharko dute beren egitekoak euskarazko edukiak sortzea eta zabaltzea edo euskararen edo euskarazko hedabideen normalizazioaren alde jardutea direla.
- b) Deialdiaren denbora eremua 2025eko urtarrilaren 1etik 2025eko abenduaren 31ra arte denez gero, dirulaguntza honetarako aurkezten diren proiektu komunikatiboak herritarren eskura egon behar dira aldi horretan, ohiko maiztasunarekin edo jardunarekin.
- c) Argitaratzen den informazio guztiaren ehuneko 40 gutxienez proiektuan bertan sortutako kazetaritzako edukiak izan behar dira.
- d) Erakundeak berak sortu behar du; hau da, edukiak erakundearen erredaktoreek sortu eta sinatu behar dituzte. Proiektu osoa euskara hutsean egin behar da eta erakundeak berak sortu behar du. Beraz, ez da onartuko laguntza jasotzen duen beste hedabide edo aldizkari baten bertsiorik.
- e) 2025-2028 Negozio Plana eginda egon behar da.
- f) Erredakzio taldeko kide bat gutxienez kazetaritzan aritu behar da (ez dauka kazetaria izan beharrik). Hori kontratu motaren bidez bermatu behar da.
- g) Dirulaguntza herriko irratirako eskatzen bada, erakundeak zerbitzu hori Arabako Lurralde Historikoan emateko behar diren lizentziak eduki behar ditu.
- h) Jabetza intelektualari buruzko araudia bete behar da.
- i) Dirulaguntza hedabide idatzi baterako eskatzen bada, lege gordailua edo ISSN zenbakia eduki behar da. Bestela, horietako baten eskaera izapidetuta eduki behar da.
- j) Banaketa sistema gardena eta agerikoa izan behar da.
- k) Prezioa agertu behar da ale guztietan. Gainera, harpidetza sistemaren bat aplikatuz gero, hori ere azaldu behar da. Aurrekoa ez zaie aplikatuko doan banatzen diren hedabide proiektuei.
- l) Beren kabuz finantzatzen duten ehunekoa hamaikagarren apartatuan ezartzen dena izan behar da.
- m) Defizita duten proiektu komunikatiboek baino ez dute jasoko dirulaguntza. Beraz, dirulaguntza jasotzeko, ezinbestekoa da proiektu komunikatiboak ezin ordaindu izatea aurreikusitako gastu guztiak berak nahitaez ekarri beharreko finantzabideekin, ez eta beste dirulaguntza publiko batzuekin ere.

2.– Proiektu komunikatiboaren ekoizpena dela eta:

a) Jarduera nagusia paperean argitaratzea bada, urtean lau ale argitaratu behar dira gutxienez, jarraitutasunarekin eta izen berarekin, eta aleetan data eta zenbakia agertu behar dira.

Hedabidearen euskarria digitala bada, astean bost eduki berri argitaratu behar dira gutxienez web orrian edo sare sozialetan, eta kontagailua egon behar da, zenbat bisita eta zenbat bisitari dauden jakiteko.

Erakunde eskatzaileak kontagailurako sarbidea emango dio Euskararen Foru Zerbitzuari. Edukietan argitaratze data agertu behar da.

b) Jarduera nagusia irratia bada, emititzeko lizentzia eduki behar da; gainera, saioak zuzenean emateaz gainera, astean bost eduki berri gutxienez ipini behar dira Interneten. Urte osoan emititu behar dira irradi saioak. Emisio orduak zenbatzeko, ez dira kontuan edukiko aurretik emandako saioen errepikapen emanaldiak, ez eta musika hutseko saioak ere. Gainera, inoren saioak edo albisteak ere ez dira kontuan hartuko, ez aldi berean ematen direnak, ez grabaturik ematen direnak.

c) Publizitatea euskaraz izan behar da, eta ezin da izan proiektuaren erdia (ehuneko 50) baino gehiago. Iragarkiak bi hizkuntzatan ere eman daitezke (orekatuta).

d) 1/2023 Legegintzako Dekretuan ezartzen diren printzipioak bete behar dira (1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testuategina onesten duena).

e) Sexismorik gabeko hizkera erabili behar da, eta edukiak lantzean kazetaritza eta pertsonen duintasuna errespetatu behar dira.

3.– Nolanahi ere, honelako proiektu komunikatiboak egiteko ez da emango dirulaguntzarik:

a) Beste hedabide batzuetan argitaratutako lanak, gaurkotasun artikulua edo kazetaritzakoak ez diren testuak kopiatzen edo moldatzen dituzten agerkariak, haiek deialdi berean eskaera aurkeztu badute.

b) Erakunde publikoen agerkariak eta gobernuak edo erakunde publikoek aginduta erakunde pribatuek argitaratu dituztenak.

c) Agerkarien gehigarriak: beste bati erantsita edo beste bat erosi behar diren baldintzarekin saltzen diren agerkariak.

d) Euskal administrazio publikoko erakundeen proiektu komunikatiboak.

e) Alderdi politikoen, hauteskunde koalizioen eta sindikatuen proiektu komunikatiboak.

f) Elkaratek, fundazioek eta antzeko erakundeek beren bazkideentzat soilik egindako proiektu komunikatiboak.

g) Glotodidaktikako eta psikopedagogiako aldizkariak, eta hezkuntzaren arloko edukiak lantzen dituztenak ere bai.

h) Eskoletako aldizkariak, irratia eta telebista.

i) Kultura berripaperak, ikuskizunen gidak, denbora pasakoak eta antzekoak.

j) Isilpeko agerkariak, mota guztietakoak, harpidetza bidez zein kioskoetan saltzen direnak edo euskarri elektronikoen banatzen direnak.

Seigarrena.- Dirulaguntzarako onartzen diren gastuak.

1. Dirulaguntzarako onartzen dira inolako zalantzarik gabe dirulaguntza jasotzen duen jardueraren izaerari lotuta daudenak, baldin eta oinarri hauetan ezarritako epealdiaren barruan egiten badira. Dirulaguntzarako onartzen diren gastuen eskuratzeko kostua ezin da izan merkatuko balioa baino gehiago.

2. Laguntza hauen deialdian sorkuntzak, jardunak, sustapenak, inprimaketak eta banaketak zuzenean eragiten dituzten gastuak baino ez dira aintzat hartuko.

3. Euskararen Foru Zerbitzuak eskaera bakoitzean dirulaguntzarako aurkezten diren gastu guztiak aztertuko eta, behar denean, onartuko ditu, balorazioa egin baino lehen.

4. Onuradunek dirulaguntzarako onartutako gastuaren konpromisoa edukiko dute: dirulaguntzarako onartutako gastu guztia frogatu beharko dute.

5. Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak 29.3 artikuluan ezarritakoa betetz, diruz lagundu daitekeen gastuaren zenbatekoa handiagoa bada sektoreko kontratazioak arautzen dituen araudian kontratu txikietarako ezarritako zenbatekoa baino (hau da, zenbatekoa 15.000 edo gehiago bada BEZik gabe hornidura eta zerbitzu kontratuetan; eta 40.000 euro edo gehiago bada BEZik gabe obra kontratuetan), erakunde onuradunak eskaintza bana eskatu beharko die, gutxienez, hiru hornitzailei, zerbitzua edo ondasuna emateko konpromisoa beren gain hartu baino lehen, salbu eta, diruz laguntzeko diren gastuen ezaugarri bereziengatik, nahikoa enpresa ez badago zerbitzu edo hornidura hori eskaintzen duenik edo salbu eta gastua dirulaguntza eskatu baino lehen egin bada.

Eskaintzak dirulaguntzaren justifikazioan edo eskaeran aurkeztu beharko dira. Jasotzen diren eskaintzen arteko hautapena eraginkortasun eta ekonomia irizpideei jarraikiz egingo da. Eskaintza merkeena hautatzen ez bada, horretarako arrazoiak berariazko memoria batean azaldu beharko dira.

6. Finantza gastuak, aholkularitza juridikoko edo finantza aholkularitzako gastuak, notariotza eta erregistroko gastuak eta diruz lagundutako proiektua gauzatzeko aditu gastuak eta berariazko administrazio gastuak dirulaguntzarako onartuko dira, baldin eta diruz lagundutako jarduerarekin zuzenean loturik badaude eta ezinbestekoak badira hura ondo prestatzeko edo egiteko.

7. Zeharkako kostuak:

a) Onuradunak zeharkako kostuen zentzuzko zatia egotzi beharko dio diruz lagundutako jarduerari, orokorki onartutako kontabilitateko printzipioekin eta arauekin bat etorriz eta, nolatan ere, kostu horiek jardura benetan egin den aldikoak diren neurrian. Dirulaguntza hauetan, dirulaguntzarako onartuko diren zeharkako kostuak jardura gastuen ehuneko 5 izango dira gehienez.

b) Zeharkako kostuen ehuneko handiagoa onartu ahalko da kasu honetan: diruz lagundutako aurrekontuari egotzen zaion ehuneko zehazteko erabilitako kostuen kalkulak behar bezala egiaztatzen badira eta aurreko baldintzak betetzen badira.

8. Tributuak dirulaguntzarako onartzen diren gastuak dira, baldin eta onuradunak ordaintzen baditu, 10.d) apartatuan xedatzen dena gorabehera.

9. Bidaiek eragiten dituzten jardun gastuen gehieneko tarifak Eusko Jaurlaritzaren otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuak, zerbitzuen ondoriozko kalteordainei buruzkoak, ezartzen duen baremora doituko dira.

10. Gastu hauek ez dira ez dira inolaz ere dirulaguntzarako onartuko:

a) Banku kontuetako interes zordunak.

b) Interesak, errekareruak eta administrazio nahiz zigor zehapenak.

c) Prozedura judizialerako gastuak.

d) Zeharkako zergak, dirulaguntzaren erakunde titularrak gastu horiek berreskuratzeko edo konpentsatzeko aukera daukanean.

e) Errentaren gaineko zerga pertsonalak.

f) Ondasun inbentariagarrietan egindako inbertsioa.

g) Hedabide digitalei dagokien, aldateta edo hobekuntza teknologikoak, hau da, aplikazio berriak sortzea edo egun erabiltzen direnak eguneratzea.

Zazpigarrena.- Indarraldia

Honako dirulaguntza hauek hedabide onuradunek 2025eko urtarrilaren 1etik 2025eko abenduaren 31ra arte egiten duten jardueran erabiliko dira.

Zortzigarrena.- Aurrekontu egozpena

322.504,00 euroko gastua baimentzen da dirulaguntza hauetarako, ondoko aurrekontu sailaren kargura, indarrean dagoen Arabako Foru Aldundiaren 2025eko aurrekontu antolamenduaren arabera: “25201.G/335251/47900250 Euskarazko hedabideentzako dirulaguntza”.

Bederatzigarrena.- Eskerak aurkezteko epealdia eta tokia

1. Eskerak aurkezteko hogeiei egun balioduneko epealdia egongo da deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

2. Administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen 39/2015 Legearen 14.2 artikulua betez, erakunde interesdunek, pertsona juridikoak diren aldetik, eskaera modu telematikoan aurkeztu behar dute nahitaez 2025eko ekitaldian tokiko edo eskualdeko euskarazko proiektu komunikatiboak sendotzeko, garatzeko eta normalizatzeko dirulaguntzen izapidearen bidez: <https://egoitza.araba.eus/eu/-/tokiko-edo-eskualdeko-euskarazko-hedabideen-jarduerak-finantzatzeko-dirulaguntzak-emateko-deialdia>.

3. Berdintasun, Euskara eta Gobernantza Sailak egiaztatuko du erakunde eskatzaileak Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dauzkan ala ez, erakundeak horren aurka egin ezean. Erakunde eskatzaileak egiaztapen hori onartzen ez badu, egitate horiek egiaztatzen dituzten agiriak aurkeztu beharko ditu, 39/2015 Legearen 28.2 artikulua arautzen duen bezala (hori abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak, datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoak, aldatzen du azken xedapenetako hamabigarrenean).

4. Erakunde batek aurkeztutako eskaeran ez badira betetzen baldintza horiek, Euskararen Foru Zerbitzuak eskatuko dio konpon ditzala hutsegiteak edo aurkez ditzala behar diren agiria, eta ohartaraziko dio ezen, eskatutakoa egin ezean, eskaera artxibatuko dela eta atzera egin duela ulertuko dela. Nolanahi ere, Euskararen Foru Zerbitzuak eskaerak ondo ulertzeko eta ebaluatzeko behar duen informazio osagarri guztia eskatu ahal izango du.

Hamargarrena.- Eskatutako agiriak

1. Eskaera elektronikoa ondo bete behar da eta berarekin batera honako dokumentazio orokor hau aurkeztu behar da, izapide honen barruko web formularioaren apartatu egokian erantsita.

a) Zeharkako zergak ez berreskuratu ez konpentsatu ezin badira, erakunde eskatzaileak balio erantsiaren zerga ez duela berreskuratzen ez konpentsatzen adierazten duen ziurtagiria, Ogasunak emana.

b) Ondoko datuak falta badira edo eguneratu behar badira, erakunde eskatzaileak alta eman behar dio bere buruari edo datuak aldatu behar ditu <https://egoitza.araba.eus/eu/-/hirugarrenaren-alta> estekaren bidez:

- Banku erakundearen identifikazio datuak eta dirulaguntza (emanez gero) ordainduko den kontuaren zenbakia.
- Egungo helbidea, telefonoa eta helbide elektronikoa.
- Banku kontuaren zenbakia (hogei digituak eta IBANa).
- Identifikazio fiskaleko zenbakia.

2. Gainera, eskaerarekin batera proiektuaren inguruko honako agiri tekniko hauek ere aurkeztu behar dira, izapide honen barruko web formularioaren apartatu egokian erantsita.

a) 2025-2028 negozio plana.

b) Proiektua azaltzen duen memoria. Bertan deialdi honen hamahirugarren artikuluan aipatzen diren baldintza eta inguruabar guztiak (balorazio irizpideak) zehaztu behar dira.

c) Proiektuaren 2025eko diru sarreraren eta gastuen aurrekontu banakatu eta xehatua.

d) Jarduera nagusia paperean argitaratzea bada, edizio digitalaz gainera:

– Agerkaria ordaindu behar bada, 2024. urtean izan duen zabalkundearen ziurtagiria, Zabalkundea Neurtzeko Bulegoak (ZNB) emana. Agiri horrek ordainpeko zabalkunde arrunta ziurtatu behar du. Ziurtagiririk ezean, inprimatze gastuen frogagiriak (fakturak eta ordainketa egiaztagiriak). Frogagiri horietan aleen kopurua zehaztu behar da.

– Agerkaria doakoa bada, 2024. urtean izan duen zabalkundearen ziurtagiria, Zabalkundea Neurtzeko Bulegoak (ZNB) emana. Agiri horrek banatutako aleen zabalkundea ziurtatu behar du. Ziurtagiririk ezean, inprimatze gastuen frogagiriak (fakturak eta ordainketa egiaztagiriak). Frogagiri horietan aleen kopurua zehaztu behar da.

– Azken zenbakiaren ale digital bat.

– Argitalpen digitala duten hedabideei dagokienez, eskaerarekin batera, ondoko agiri teknikoak ere aurkeztu beharko dira:

- Bisiten kontagailurako edo deskargen erregistrarako sarbidea.

- Webgunearen domeinuaren erregistro ziurtagiria, hedabide digitala argitaratzen duen erakunde eskatzailearen izenean egina.

– Urtarrilaren 1etik deialdia argitaratu arte interneten ipinitako edukien zerrenda.

– Bidezkotzat jotzen diren gainerako informazio osagarri guztiak.

e) Jarduera nagusia irratia bada, edizio digitalaz gainera:

– Irrati emanaldietarako lizentzia.

– Ebazpena, jabari publiko erradioelektrikoaren erabilera pribatiborako baimena ematen duena tokiko eremuan irrati difusioko zerbitzua emateko frekuentzia-modulazioa duten uhin metrikoen bidez.

– Proiektu teknikoa aurkeztu delako ziurtagiria.

– Zuzeneko asteko programazioa (norberak sortutako saioak erosietatik bereizi behar dira).

– Jarduera digitalari dagokionez, eskaerarekin batera agiri tekniko hauek ere aurkeztu beharko dira:

- Bisiten kontagailurako edo deskargen erregistrarako sarbidea.

- Webgunearen domeinuaren erregistro ziurtagiria, hedabide digitala argitaratzen duen erakunde eskatzailearen izenean egina.

– Urtarrilaren 1etik deialdia argitaratu arte interneten ipinitako edukien zerrenda.

– Bidezkotzat jotzen diren gainerako informazio osagarri guztiak.

f) Genero berdintasuna dela eta, erakunde eskatzaileek honako informazio hau eman beharko dute:

- Erakundearen genero berdintasunari buruzko plana, 3/2007 Lege Organikoak, emakume eta gizonen berdintasun eraginkorrerako denak, 45.2 artikuluan xedatzen duenaren aplikazio eremuan badago.

- Erakundearen barruan berdintasunerako abian jarritako neurriak edo plana.

- Genero berdintasunaren ikuspegitik, diruz laguntzen diren jardueren eremuan eta dirulaguntzen indarraldiaren barruan aplikatuko den hobekuntza neurri bat.

g) Eskatzen diren agirietako batzuk dagoeneko beste administrazio publiko batzuen eskuetan badaude, dirulaguntzaren eskatzaileak urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 28.3 artikuluen bigarren apartatuan ezarritakoa baliatu ahalko du, betiere aipaturiko agiriak noiz eta zer administrazio organoren aurrean aurkeztu zituen adierazten badu. Esandako agiria lortzea ezinezkoa bada, eskatzaileari eskatuko zaio aurkez dezala edo, bestela, beste bide batetik egiazta dezala agirian aipatzen diren baldintzak betetzen direla.

Hamaikagarrena.- Diruz lagundutako jardueren finantzaketa

1. Laguntza hauek jasotzeko, hedabideek beren baliabideekin finantzatu beharko dute urteko gastuen % 25 gutxienez.
2. Diruz lagundutako jardueraren finantzaketa propioa jarduerak eragiten dituen gastuak bezala egiaztatuta beharko da.
3. Erakunde eskatzailearen finantzaketa propioa kontzeptu hauen batura izango da:
 - a) Erakundearen beraren funtsen ekarpena.
 - b) Zerbitzuen salmentarekin lortutako zenbatekoa.
 - c) Produktuen salmentarekin lortutako zenbatekoa.
 - d) Hedabideak zabaldutako publizitatearekin lortutako zenbatekoa.
 - e) Erakunde pribatuen babesaren esker lortutako zenbatekoa.

Hamabigarrena.- Dirulaguntzen zenbatekoa.

1. Laguntzen zenbatekoa, AFak bakarrik emandakoa edo beste administrazio batek edo haren mendeko sektore publikoek helburu bererako ematen dutenekin batera, ezin da izan erakunde onuradunak egiten duen jardueraren kostua baino gehiago. Erakundearen finantzabideen, beste laguntza publiko batzuen eta oinarri hauen arabera emandako zenbatekoaren batura jardueraren kostua baino gehiago bada, programa honetan arautzen den laguntzen zenbatekoa gutxitu egingo da jardueraren gainfinantzaketa saihesteko.
2. Hedabide bakoitzari ematen zaion laguntzen zenbatekoa Euskararen Foru Zerbitzuari aurkeztutako eskaeran ageri dena izango da gehienez eta 2.000,00 euro gutxienez. Balorazioaren arabera urteko zenbateko horren azpitik dabilzan hedabideek ez dute dirulaguntzarik jasoko.

Hamahirugarrena.- Proiektua azaltzen duen memoria eta dirulaguntzen balorazio irizpideak.

Dirulaguntzarako aurkeztzen den proiektua azaltzen duen memorian nahitaez agertu behar dira atal hauek guztiak, bai eta nahitaezkoak izan arren baloratuko ez direnak ere:

- 1.- Balorazio irizpideak (100 puntu):
 - a) Aurkeztutako proiektuaren deskribapena (15 puntu):
 - Proiektu komunikatiboaren deskribapena (nahitaezkoa; ez da baloratuko), eta:
 - Argitalpenaren euskarri guztien deskribapenak baloratuko dira (5 puntu).
 - Edukiak euskarri desberdinetan zabaltzeko modukoak izatea baloratuko da (5 puntu).
 - Ikusi-entzuneko (audioa + testua + argazkia) edukien sorkuntzaren maiztasuna baloratuko da (5 puntu).

– Lantaldea, organigrama: taldeko kideak eta haien egitekoak zehaztu behar dira. Agerkariaren lehen orrialdeetan taldekide guztiak aipatu behar dira. Eduki (idatzi zein ikus-entzunezko) bakoitzean kazetariaren izen-abizenak agertu behar dira. Edukia beste hedabide batekoa izanez gero, haren izena agertu behar da (nahitaezkoa; ez da baloratuko).

b) Proiektuaren kalitatea (60 puntu):

– Audientzia: azaldu behar da proiektua norentzat den eta zer sistema erabiltzen den audientzia aztertzeko. Audientzia berrietara heltzeko plana zehaztu behar da, eta produktuen eta audientzien arteko lotura azaldu. Planaren balorazioa. Audientziaren eta edukien arteko erlazioa baloratuko da (10 puntu).

– Trafiko datuen analisia: datuak aztertzeko zer panel erabiltzen den azaldu behar da. Datuak etengabe aztertzea baloratuko da (5 puntu).

– Presentzia digitala: proiektu komunikatiboa eremu digitalean nola moldatzen den eta edukiak bertan zabaltzeko erabiltzen den estrategia baloratuko dira. Hedabideak arlo digitala lehenesteko erabiltzen duen estrategia eta bere lan-fluxua horretara egokitzeko egiten duen lana baloratuko dira (10 puntu).

– Kultura eta euskara: proiektu komunikatiboak euskal kulturarekin edo euskararekin daukan konpromisoa baloratuko da (5 puntu).

– Zabalkundea: proiektu komunikatiboak sortzen dituen edukiak zabaltzeko estrategia baloratuko da (5 puntu).

– Informazioaren egiazkotasuna: zabaltzen den informazioaren egiazkotasuna bermatzeko erabiltzen den estrategia baloratuko da. Berriak egiazkoak diren edo testuingurutik atera diren ala ez eta edukiak egiaztatzeko prozedurarik aplikatzen den baloratuko da (5 puntu).

– Eragina gizartean: proiektu komunikatiboak gizartean daukan eragina azaldu behar da, eta erabiltzen duen neurketa sistemaren berri eman behar da (hedabideak eduki bat hautatu behar du eta haren analisia egin behar du bere sistemaz baliatuz). Neurketa sistema baloratuko da (5 puntu).

– Kode etikoa: proiektu komunikatiboaren kode deontologikoa eta horren erabilera (nahitaezkoa, ez da baloratuko).

– Markaren kudeaketa: marka kudeatzeko erabiltzen den estrategia baloratuko da (puntu bat).

– Segmentazioa: berriazko xede taldeentzat pentsatutako eduki edo produktu bereziak sortzen dira eta horrela segmentazioa hobetzen da. Harpideentzako proiektu eksklusiboak (adibidez: datu horma). Horren inguruko estrategia baloratuko da (puntu bat).

– Berrikuntza: proiektu komunikatiboa etengabe egokitzea berrikuntzaren bidez; azken produkturako planarekin egitea baloratuko da. Batzuetan berrikuntza proiektuak banaka egingo dira eta beste batzuetan enpresa espezializatu edo hedabide batekin batera. Proiektu horien azalpena baloratuko da. Teknologia berriak: teknologia berriak aplikatzea lan fluxuaren atal batean. Itzultzaile automatikoa, harpidetzak kudeatzeko sistemak, maketazio sistema aurreratuak, kudeaketa aurreratuak... Teknologia berriak aplikatzea baloratuko da (5 puntu).

– Xede talde potentziala: proiektu komunikatiboaren xede talde potentziala zehaztea baloratuko da (puntu bat).

– Berdintasuna: proiektu osoan eta edukien sorkuntzan genero ikuspegia txertatzeko plana baloratuko da (5 puntu).

– Harpidetza: proiektu komunikatiboaren harpidetza bultzatzeko jardueren plana baloratuko da (puntu bat).

– Ingurumena: proiektu osoan eta edukien sorkuntzan ingurumenaren ikuspegia txertatzea baloratuko da (puntu bat).

c) Ezaugarri ekonomikoak, aurrekontu koherentzia, aurrekontua eta jardueren plana (25 puntu):

– Aurrekontu koherentzia baloratuko da, hau da, korrelazio ekonomikoa egotea aurrekontuaren eta jardueren planeko proposamenaren artean. Jardueren planean organigrama egon behar da, frogatzen duena eskatzailearen plantillan badaudela laguntza aplikatuko den edukiak sortzeko behar diren gaitasunak dauzkaten langileak. Langileen kopurua eta haien egitekoak (nahitaezkoa; ez da baloratuko).

- Aurrekontua orekatuta egotea baloratuko da, eta autofinantzaketa azaltzea (5 puntu).
- Kudeaketa orokorra baloratuko da (gerentzia, administrazioa, kazetaritza, webgunea, sare sozialak etab. (5 puntu).
- Ikus-entzunezkoetako langile teknikoak baloratuko dira (5 puntu).
- Diseinua eta zuzentasuna baloratuko dira (5 puntu).
- Bitarteko materialak baloratuko dira (5 puntu).

– Marketin plana azaldu behar da. Helburu zehatzak eta horiek lortzeko plana, hedabidearen zabalkundea xede hartuta (nahitaezkoa; ez da baloratuko).

2.– Proiektu bakoitzaren puntuazioa oinarri honetako balorazio irizpideen arabera ezarriko da.

3.– Proiektu komunikatibo bakoitzaren dirulaguntza ehunekoa puntuazioaren arabera banaketa sistema honen bidez finkatuko da:

- 30 puntu lortuz gero, dirulaguntzarako onartzen den aurrekontuaren ehuneko 40. (Puntuazioa horik beherakoa bada, proiektuak ez du jasoko dirulaguntzarik).
- 100 puntu lortuz gero, dirulaguntzarako onartzen den aurrekontuaren ehuneko 75. Puntuazioa 31 - 100 bitartekoa bada, puntuaren balioaren arabera kalkulatu da dirulaguntza. Puntuaren balioa kalkulatzeko, gainerako zenbatekoa 70z zatitu behar da (30etik 100era 70 puntu daude). Eskaera bakoitzaren puntuak puntuaren balioaz biderkatuko dira eta emaitza dirulaguntzaren zenbatekoa izango da, baldin eta horri gainerako diru sarrerak gehituta batura ez bada jardueraren kostua baino gehiago.

Nolanahi ere, dirulaguntza ehunekoek eta zenbatekoek muga dute: proiektu komunikatiborako eskatutako zenbatekoa (ezin da izan aurkeztutako gastu aurrekontuaren ehuneko 75 baino gehiago) eta/edo dirulaguntzarako aurrekontu partidaren zenbatekoa.

Aurrean ezarritakoaren arabera kalkulatzeko diren dirulaguntzen batura baliabide ekonomikoak baino gehiago bada, onuradunei esleitutako dirulaguntza ehunekoak modu proportzionalan txikituko dira, baliagarri dagoen partidaren zenbatekora moldatzeko. Halaber, dirulaguntzen batura muga horretara iristen ez bada, dirulaguntzak partida agortu arte handitu ahal izango dira.

Hamalagarrena.- Instrukzioa

1. Dirulaguntzak emateko prozeduraren instrukzioa Euskararen Foru Zerbitzuak egingo du. Zerbitzu horrek ofizioz egingo ditu ebazpen proposamena egiteko behar diren datu guztiak zehazteko, ezagutzeko eta egiaztatze beharrezkotzat jotzen diren jarduketa guztiak.
2. Instrukzio aldiaren hasieran Euskararen Foru Zerbitzuak dirulaguntzen eskaerak ebaluatuko ditu: eskatzaileek dirulaguntza jasotzeko ezarri diren baldintzak betetzen dituzten egiaztatuko du eta aurkeztutako agiriak ondo bete diren eta zuzenak diren aztertuko du.
3. Eskaerak Balorazio Batzordeak aztertuko ditu. Batzorde horren burua Euskararen eta Gobernu Irekiaren zuzendaria izango da, eta honako hauek izango dira batzordekideak: Euskararen Foru Zerbitzuko burua eta Euskararen eta Gobernu Irekiaren Zuzendaritzari atxikitako bi teknikari. Idazkaria Idazkaritza Teknikoko eta Herriarrak Atenditzeko Zerbitzuko burua izango da; horrek hitza edukiko du, baina botorik ez.

Hamabosgarrena.- Ebazpena

1. Foru Gobernu Kontseiluak erabaki baten bidez ebartziko ditu dirulaguntza hauen eskaerak, instrukzio organoak proposatuta.
2. Ebazpena oinarri arautzaileetan xedatzen denarekin bat etorritz emango da. Nolanahi ere, ematen den ebazpenaren oinarriak prozeduran egiaztatu beharko dira.
3. Dirulaguntza emateko ebazpenean honako hauek agertu behar dira: dirulaguntzaren xedea, dirulaguntza nori ematen zaion (eskatzailea edo eskatzaileen zerrenda), zenbatekoa, ordaintzeko modua eta epealdiak eta deialdia arautzen duten oinarrietan eskatzen diren gainerako baldintzak eta betekizunak. Era berean, ebazpenaren kontra aurkez daitezkeen errekurtsoen berri emango da eta azalduko da errekurtsok zer organoren aurrean eta zer epealdiren barruan aurkeztu behar diren. Gainera, adieraziko da interesdunek bidezkotzat jotzen dituzten beste errekurtsok batzuk ere aurkez ditzaketela.
4. Euskararen Foru Zerbitzuaren proposamena aztertuta, Organo eskudunak bidezko ebazpena emango du deialdia ALHAOn argitaratzen denetik lau hilabete igaro baino lehen. Epealdi horretan berariazko ebazpenik ematen ez bada, erakunde onuradunek ezetsitzat jo ahal izango dute eskaera.
5. Dirulaguntza ematen edo ukatzen dien ebazpenaren berri emango zaie eskatzaileei, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 43. artikuluan xedatzen duen moduan.

Hamaseigarrena.- Onuradunen betebeharrak

1. Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak ezartzen dituen betebeharez gainera onuradunek honako hauek ere edukiko dituzte:
 - a) Dirulaguntza emateko oinarria izan den proiektua gauzatzea, jarduera egitea edo jokabidea hartzea.
 - b) Dirulaguntza ematen duen organoari frogatzea betekizunak eta baldintzak bete direla eta dirulaguntza emateko edo gozatzeko oinarriak izan diren jarduera egin dela eta helburua bete dela.

c) Dirulaguntza eman duen organoak egiten dituen ikuskatze lanak onartzea, baita kontrol organo eskudunek egiten dituzten egiaztapen eta finantza kontrolak ere, eta zeregin horietan eskatzen zaien informazio guztia ematea.

d) Diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko eskuratutako beste dirulaguntza, laguntza, diru sarrera eta baliabide guztien berri jakinaraztea dirulaguntza ematen duen organoari. Dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide horien berri jakin bezain laster jakinarazi beharko zaio organo eskudunari eta, nolanahi ere, jasotako funtsak nola erabili diren justifikatu baino lehen.

e) Dirulaguntza emateko ebazpen proposamena eman aurretik, zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean daudela frogatzea.

f) Indarrean dagoen legeriak onuradunari kasuan-kasuan eskatzen dizkion kontabilitate liburuak, erregistro izapidetuak eta gainerako agiriak eskura edukitzea, bai eta dirulaguntzen oinarri arautzaileetan eskatzen diren kontabilitate egoerak eta berariazko erregistroak ere, ikuskapen eta kontrol eskumenak behar bezala erabiltzen direla bermatzeko.

g) Jasotako dirulaguntza nola erabili den frogatzen duten agiriak gordetzea, egiaztatu eta kontrolatu ahal izateko.

h) Euskarri guztietan Arabako Foru Aldundiak emandako dirulaguntzaren berri ematea Arabako Foru Aldundiaren logotipo normalizatuaren bidez. Logotipo hori agerian egon beharko da ebazpena ematen den unetik dirulaguntzaren indarraldia amaitu arte.

i) Diruz lagundutako jardueretan, azaroaren 24ko 10/1982 Lege Organikoak, euskararen erabilera normalizatzeari buruzkoak, ezarritako printzipioak betetzea eta euskal hiztunen hizkuntza eskubideak errespetatzea.

j) Euskaltzaindiak hizkuntzari buruz emandako arauak eta gomendioak aintzat hartzea eta betetzea, eta hizkuntza zuzentasunaren eta egokitzapenaren arduraduna izendatzea.

k) Onuradunek nahitaez bete beharko dituzte Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako legearen testuategina onesten duen martxoaren 16ko 1/2023 Legean eta Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarriko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan ezartzen diren printzipioak eta betebeharrak. Sortzen dituzten agiri eta euskarri guztietan hizkuntza eta irudiak modu inklusiboan eta sexismorik gabe erabili beharko dituzte, emakumeak diskriminatzen dituzten irudiak eta estereotipo sexistak saihestu beharko dituzte eta berdintasuna, oreka, aniztasuna eta ardurakidetasuna sustatu beharko dituzte, bai eta rol eta genero identitateen aniztasuna ere.

l) Diruz lagundutako jardueretan jabetza intelektualari, egileen eskubideei eta lege gordailuari buruzko indarreko lege xedapenak betetzea.

m) 20. oinarriko kasuetan, jasotako funtsak itzultzea.

n) Dirulaguntza emateko kontuan hartutako inguruabarretan gertatzen diren aldaketa guztien berri ematea dirulaguntza eman duen organoari.

o) Diruz lagundutako jarduera egiteko behar diren baimen guztiak lortzea eta horietan ezarritako baldintzak betetzea.

2. Arestian azaldutako betebeharrak ez betetzeak dirulaguntza osoa edo zati bat itzuli beharra ekar dezake.

Hamazazpigarrena.- Dirulaguntzak ordaintzea eta justifikatzea

1. Dirulaguntzaren ehuneko 70 “justifikatu beharreko aurrerakin” gisa emango da. Kopuru hori ebazpena ematen den egunetik aurrera ordainduko da, justifikatu beharreko aurrerakin gisa, eta ez da egongo funtsen bermerik ezarri beharrik. Gainerakoa gastu guztiak frogatu ondoren ordainduko da. Hori 2025eko abenduaren 15erako egin behar da. Gastu guztiak egiaztatu ezean, Arabako Foru Aldundiak epealdiaren barruan aurkeztutako gastuen proportzioan murriztuko du bigarren ekarpena. Azken ekarpen hori ere justifikatu beharreko aurrerakin gisa egingo da.

2. 2026ko otsailaren 15erako aurkeztu beharko dira dirulaguntza justifikatzen duten gastuak ordaindu direla frogatzen duten agiriak. Orduan, dirulaguntza osoa justifikatuko da.

3. Dirulaguntzen justifikazioa, betiere, Foru Gobernu Kontseiluaren uztailaren 21eko 23/2020 Foru Dekretuaren hamalagarren oinarrian ezarritakoaren arabera egin beharko da (foru dekretu horren bidez onespena eman zitzaizen Diputatu Nagusiaren Sailak lehiaketa bidez ematen dituen dirulaguntzak arautzen dituzten oinarri orokorreari).

4. Gastuak frogatzeko, erakunde onuradunek justifikazio kontu erraztua aurkeztu beharko dute, hain zuzen ere hauetan arautzen dena: 11/2016 Foru Araua, urriaren 19koa, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoa, 28. artikulua 1. eta 2. zenbakiak; Foru Gobernu Kontseiluaren uztailaren 21eko 23/2020 Foru Dekretua, Diputatu Nagusiaren Sailak lehiaketa bidez ematen dituen dirulaguntzak arautzen dituzten oinarri orokorrak onesten dituen, 14. oinarria.

5. Gaitutako kanal elektronikoak egindako jardueraren edo programaren memoria xehatua aurkeztu behar du, dirulaguntza ematen duen ebazpenean ezarritako baldintzak bete direla frogatzeko. Bertan honako datu hauek agertu behar dira: egindako jarduerak, lortutako emaitzak eta proiekturako erabili diren langileak eta baliabide materialak.

6. Justifikazio kontua erraztua modu elektronikoan aurkeztu behar da, beraren atalean. Honako osagai hauek eduki behar ditu:

- Gauzatutako diru sarreraren eta gastuen balantzea.
- Jarduerari lotutako gastu guztien zerrenda sailkatua; bertan datu hauek agertu behar dira: hartzekoduna, gastuen agiria edo faktura, zenbatekoa, noiz egin den eta, behar denean, noiz ordaindu den.
- Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru sarreraren eta dirulaguntzen xehetasunak (zenbatekoa eta jatorria).
- Behar denean, aplikatu ez diren gerakinak eta horien interesak itzultzeko ordainketa gutuna.
- Hornitzaile bakarrarentzat, banaka edo multzoka hartuta, gastu kontzeptu bakarrerako 1.000 euroko (BEZ aintzat hartu gabe) zenbatekoa gainditzen denean, jatorrizko fakturak edo balio bereko agiriak aurkeztu beharko dira, baita haiek ordaindu direla frogatzen duten agiriak ere.
- Beste alde batetik, instrukzio organoak dirulaguntza bere xederako erabili denez argitzeko beharrezkotzat jotzen dituen agiri, argibide, frogagiri eta faktura guztiak eskatu ahal izango dizkie onuradunei.

7. Euskararen Foru Zerbitzuak dirulaguntza zuzen erabili den ala ez argitzeko beharrezkotzat jotzen dituen beste informazio gehigarri guztiak eskatu ahal izango ditu.

8. Arabako Foru Aldundiaren aipamena. Honelako laguntza bat jasotzen duten proiektu komunikatibo guztiek Arabako Foru Aldundiaren babesaren berri eman beharko dute. Horretarako, honako hauek aipatu beharko dituzte:

a) Proiektu komunikatiboaren jarduera nagusia paperean argitaratzea bada, edizio digitalaz gainera:

- Agerkarian Arabako Foru Aldundiaren publizitate oharra txertatu behar da: haren logotipo normalizatua.
- Arabako Foru Aldundiaren logotipo normalizatua dirulaguntza ematen duen ebazpenaren egunetik aurrera txertatu beharko da.
- Arabako Foru Aldundiaren logotipo normalizatua agerkariaren kredituak (editorea, zuzendaria, erredaktoreak, tirada, etab.) jartzen diren toki berean agertu behar da. Hori ezinezkoa bada, Berdintasun, Euskara eta Gobernantza Sailarekin adostuko da zein den tokirik egokiena (garrantzi eta ikusgarritasun berekoa izan behar da).

b) Proiektu komunikatiboaren jarduera nagusia irratia bada, edizio digitalaz gainera:

- Dirulaguntza jasotzen duten irrati guztietan esaldi hau esaten den publizitate oharra eman behar dute nahitaez: “Arabako Foru Aldundiaren dirulaguntza jasotzen dugu”.
- Publizitate ohar hori gutxienez 4 aldiz eman beharko da egunean, birritan audientzia handieneko ordu tartean (06:00-10:00), arratsaldean behin eta gauean beste behin.
- Publizitate oharra dirulaguntza ematen duen ebazpenaren egunetik aurrera eman beharko da.

9. Gastuak frogatzeko ez da onartuko honako datu hauek argi eta garbi azaltzen ez dituen fakturarik ez ordainagiririk:

- Igorlearen izen-abizenak edo sozietate izena eta NANA edo IFKa.
- Hartzailearen izen-abizenak edo sozietate izena eta NANA edo IFKa.
- Gastuaren xedea.
- Data.
- Fakturaren zenbakia.

10. PFEZaren (pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga) konturako atxikipenei buruzko zerga araudia eta fakturatzeko betebeharren arloko araudia betetzen ez dituzten fakturak eta ordainagiriak ez dira onartuko gastuen frogagiri gisa.

11. Agiri hauek onartuko dira fakturak ordaindu direla frogatzeko:

- Fakturak, enpresa igorlearen zigiluarekin, zenbatekoa ordainduta dagoela adierazten dutenak.
- Faktura egin duenak sinatutako eta/edo zigilatutako ziurtagiria, honako datu hauek zehazten dituenak: fakturaren zenbakia, zenbatekoa eta zer egunetan ordaindu den.
- Bankuko ziurtagiria, gutxienez honako datu hauek zehazten dituenak: ordainketaren edo transferentziaren zenbatekoa, data eta onuraduna.
- Posta arruntez jasotako banku laburpenak.

- Kontu korronteen libretak, mugimenduak ageri dituztenak.

- Posta elektronikoz jasotako banku laburpen elektronikoak edo transferentzia agindu telematikoak.

- Erosketa tiketak, zenbatekoa ordaindu dela egiaztatzen dutenak (merkataritza guneetakoak, autobideetakoak, bidaia txartelak eta abar).

12. Ez da onartuko eskudirutan ordaintzea 2025eko ekitaldirako indarreko araudian ezartzen den zenbatekoa (edo haren kontrabalioa atzerriko dirutan) edo hortik gorakoa.

13. Aurreko paragrafoan adierazitako zenbatekoa kalkulatzeko, ondasun ematea edo zerbitzua zatikatu bada, eragiketa edo ordainketa guztien zenbatekoak batuko dira.

14. Eskaerarekin batera aurkeztu ezean, eta jasandako BEZaren kuotak diruz laguntzeko moduko gastu moduan konputatzeari begira, Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaren ebazpena edo zerga egoitza dagoen lurraldeko zerga administrazioarena, BEZaren Foru Arauaren 20.hiru artikuluan ezartzen den erakundearen izaera soziala onartzen duena, aurkeztu beharko da, arau horren 20.bat artikuluan 12. eta 14. apartatueta arautzen den zergaren salbuespena aplikatzeko.

15. Aurkeztutako programan langileriaren gastuak ageri badira, onuradunak honako hauek aurkeztu beharko ditu gaitutako kanal elektronikoari buruz:

- Langileriaren gastuen eta kostuen taula, langileen jatorrizko nominak eta Gizarte Segurantzaren RNT eta RNC agiriak, zuzeneko langileak badira, edo, zerbitzugintza beste erakunde bati azpikontratatzeko bazea, fakturak.

16. Frogagiriekin batera erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko da, esaten duena aurkeztutako informazioa egiazkoa dela eta agiriak benetakoak direla eta jatorrizkoekin bat datoze.

Hemezortzigarrena.- Diruz lagundutako jarduerak azpikontratzea

1. Onuradun batek azpikontratatu egin duela ulertuko da dirulaguntzaren xede den jarduera osoa edo haren zati bat egitea hirugarrenekin hitzartzen duenean. Kontzeptu horretatik kanpo geratzen da onuradunak dirulaguntza jaso duen jarduera bere kabuz gauzatzeko egin behar dituen gastuen kontratazioa.

2. Onuradunak hirugarrenekin azpikontratatzeko duen diruz lagundutako jarduera ezin da izan jardueraren zenbatekoaren ehuneko 60tik gorakoa. Dirulaguntza jasotzen duen jardueraren kostua gehituta ere, haren edukiari balioa erantzen ez dioten jarduerak ezin izango dira azpikontratatu.

3. Pertsona onuradunak inola ere ezingo du hitzartu diruz lagundutako jarduera osoa edo zati bat egitea honako hauekin:

a) Deialdi honen 3.2 oinarrian ezartzen denari jarraikiz, dirulaguntza onuraduna izatea eragozten duten inguruabarretako batean dauden pertsonekin eta erakundeekin.

b) Kontratazioaren xede den jarduera egiteko beste dirulaguntza batzuk jaso dituzten pertsonekin eta erakundeekin.

c) Bitartekari edo aholkulariekin, horientzako ordainketak eragiketaren guztirako kostuaren ehuneko gisa zehazten badira, salbu eta ordainketa hori justifikatuta dagoenean egindako lanaren edo emandako zerbitzuen merkatuko balioa erreferentziazat hartuta.

d) Onuradunarekin lotura duten pertsonekin eta erakundeekin, honako kasu hauetan izan ezik:

- Kontratazioa merkatuaren baldintza arrunten arabera egitea.
- Aurretik organo emailearen baimena jasotzea, oinarri arautzaileetan ezartzen denaren arabera.

e) Deialdi eta programa berean laguntza edo dirulaguntza eskatu eta baldintzak ez betetzeagatik edo balorazio nahikoa ez lortzeagatik dirulaguntzarik jaso ez duten pertsonekin eta erakundeekin.

Hemeretzigarrena.- Dirulaguntzen bateragarritasuna

Deialdi honetan ematen diren dirulaguntzak bateragarriak izango dira estatuko edo nazioarteko beste erakunde publiko zein pribatu batzuek jarduera edo programa bererako ematen dituzten beste dirulaguntza batzuekin, baldin eta dirulaguntzaren zenbatekoa (bera bakarrik edo beste dirulaguntza batzuekin batera) diruz lagundutako programaren edo programen kostua baino gehiago ez bada.

Estatuko edo nazioarteko beste administrazio edo erakunde publiko batek edo erakunde pribatu batek helburu bererako beste dirulaguntza edo laguntza bat emanez gero, edo horietako bati xede bererako dirulaguntza eskatuz gero, erakunde onuradunak horren berri eman beharko dio dirulaguntza eman dion organoari.

Hogeigarrena.- Dirulaguntzak itzultzea

1. Jasotako zenbatekoa itzuli beharko da eta horren berandutze interesak (dirulaguntza ordaindu denetik hura itzuli behar dela erabaki arte sortuak) ordaindu beharko dira 23/2020 Foru Dekretuan ezartzen diren kasuetan (23/2020 Foru Dekretua, Foru Gobernu Kontseiluarena, uztailaren 21ekoa, Diputatu Nagusiaren Sailak lehiaketa bidez ematen dituen dirulaguntzak arautzen dituzten oinarri orokorrak onesten dituen), eta, bereziki, honako kasu hauetan:

a) Dirulaguntza lortzeko eskatzen diren baldintzak faltsutzen direnean edo hura ematea eragotziko zuen zerbait ezkututzen denean.

b) Dirulaguntzaren xede den jardueraren edo proiektuaren helburua (osorik edo zati bat) betetzen ez denean edo dirulaguntza emateko kontuan edukitako jokabidea aplikatzen ez denean.

c) Dirulaguntza justifikatu beharra betetzen ez denean edo hura behar bezala justifikatzen ez denean, deialdi honen 17. oinarrian ezartzen denari jarraikiz.

d) Arabako Foru Aldundiaren babesa erakutsi beharra betetzen ez denean.

e) Indarrean dagoen legerian xedatutako egiaztapen eta finantza kontroleko jarduketak onartzen ez direnean edo trabak, aitzakiak edo oztopoak jartzen zaizkienean; kontabilitateko, erregistroko eta agirien zaintzaren arloko betebeharrak betetzen ez direnean, baldin eta, horren ondorioz, hartutako funtsak zertarako erabili diren, helburua bete den, diruz lagundutako jarduerak benetan eta etengabe egin diren, eta helburu bererako Estatuko edo Europar Batasuneko beste administrazio edo erakunde publiko zein erakunde pribatu batzuen edo nazioarteko erakundeen dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide gehiago jaso den egiaztatu ezin bada.

f) Onuradunek administrazioak ezarritako betebeharrak (haiek dirulaguntza ematean bereganatutako konpromisoak barne) betetzen ez dituztenean, baldin eta horrek helburuak lortzeko, jarduera egiteko, proiektua burutzeko edo dirulaguntza ematean aintzat hartu den jokabidea hartzeko erari eragin badio edo horrekin zerikusia badu.

2. Emandako dirulaguntzen edo laguntzen zenbatekoa, bakarka edo beste administrazio publiko edo estatuko nahiz atzerriko erakunde publiko edo pribatuek emandako zenbatekoei gehituta, onuradunak egiten duen jardueraren kostua baino gehiago bada, Arabako Foru Aldundiak emakida aldatuko du eta, bidezkoa bada, jardueraren kostuaren gainetik hartutako soberakina itzultzeko eskatuko du.

3. Itzuli beharreko zenbatekoak eskubide publikoko sarreratzat hartuko dira.

Hogeita batgarrena.- Dirua itzuli beharra

1. Aurreko oinarrian arautzen diren kasuetan erakunde onuradunek hartutako zenbatekoa (osorik edo zati bat) itzuli beharko dute eta berandutze interesak ordaindu beharko dituzte. Horrez gainera, kasu batzuetan baliteke zehapena ere ezartzea.

2. Dirua itzuli beharraren erantzule subsidiarioak izango dira merkataritza sozietateetako administratzaileak edo pertsona juridikoen legezko ordezkariak, beren ardurapeko egintzak egiten ez badituzte urratutako betebeharrak betetzeko, ez-betetzeak ahalbidetzen dituzten erabakiak hartzen badituzte edo beren mendekoen ez-betetzeak onartzen badituzte.

3. Era berean, aplikatu beharreko lege edo estatutu xedapenekin bat etorritik, pertsona juridikoen legezko ordezkariak duten pertsonak dirua itzuli beharraren erantzule subsidiarioak izango dira jarduerarekiko lotura eten ondoren.

Hogeita bigarrena.- Publikotasuna

Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da, eta ahaleginak egingo dira komunikabideetan ahalik eta zabalkunde handiena izan dezan.

Eranskinak formatu digitalean eskuratu daitezke webgune honetan: www.araba.eus

Euskararen Foru Zerbitzuak www.euskaraba.eus webgunean argitaratu ahal izango du diruz lagundutako programa edo jarduera.